

Tratu onen aldeko plataforma

Elkarte honek 3 urte beteko ditu aurten. Hainbat taldez osatuta dago eta euren helburua, emakumeengako indarkeriaren aurrean errefusa erakustea da, besteak beste. Urtero bezala, kanpaina berezia prestatu dute aurtengo jaietarako, batez ere, eraso sexisten aurka egiteko.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Plataforma 2006 urteko azaroan sortu zen Ermuko emakume baten heriotzaren ondoren. Kasu horrek Ermuko herritarren erreakzioa probokatu zuen, emakumeen indarkeriaren aurkako manifestazio batean parte hartuz. Ermuko Berdintasun sailetik, herriko elkarte, zerbitzu eta agente sozialei deia egin zitzaizen plataforma hau sortzeko.

- Zenbat kide zarete?

Hasieran 24 bat taldek osatzen genuen plataforma, horietatik 5 hezkuntza esparrukoak, 14 esparru sozial eta kulturalakoak eta 5 berdintasun esparrukoak ziren. Ondoren beste talde batzuk (sindikatuak...) egin ziren taldeko kide eta denborarekin beste batzuk arrazoi ezberdinak tarteko, plataforma utzi dute.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Plataformak helburu desberdinak ditu; emakumeenganako indarkeriaren aurrean errefusa erakustea, esparru guztietan: koadrilan, lanean, eskolatan... Halaber konpromiso pertsonal eta kolektiboa; emakumeen aurkako indarkeriari kontra eginez. Baita ere arazo honen aurrean kolektibo eta erakunde ezberdinekin koordinatzea esfortzuak gehituz. Sentsibilizazioa eta denuntzia soziala; ekintza ezberdinak bultzatuz herritarren eta erakunde ezberdinen kontzientzia eta konpromisoa lortzeko, besteak beste.

- Zein maiztasunarekin biltzen zarete eta non?

Hilabetean behin biltzen gara Emakumeen Topalekuan, normalean ostegun arratsaldetan 18:30etatik aurrera.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Urtero-urtero plataformako kideok Santixauetako jaietarako kanpaina bat prestatzen dugu, jaietan emakumeen erabateko partaidetza suspertzeko eta batez ere eraso sexisten kontra egiteko. Helburu horrekin pegatinak, "Santixauetan emakumeak edonon" lemarekin, zapiak "Jai larai emakumeak ere lasai" lemarekin eta pasa den urtean eskumuturrekoak 'Enchúfate al buen rollo' lemarekin atera genituen. Aurten txapa batzuk egin ditugu, 'Jaietan ere tratu onen alde' lemarekin eta uztailaren 24an



banatuko dira arratsaldeko 18:30etan Patxi plazan. Urtean zehar Emakumeen Udak Kontseiluarekin koordinatzen gara, bereziki azaroaren 25ean egiten diren ekitaldietarako.

- Nori zuzendua dago Plataforma?

Plataforma espazio zabala da, hausnarketa eta jarduera eremu bezala erabiltzen dugu, beraz zabalik dago bai talde, elkarte, kolektibo, zein gizon edo emakumei... Hemendik interesa duen pertsona oro plataforman parte hartzera animatu nahi dugu.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Emakumeen Topalekura joanda, Izelaieta kaleko 12ra edota 943171030 telefono zenbakira deituz.

Olatz Gil

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

San Antonio

Izelaieta, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

OINAK

**LEIRE MAYORA
PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

**SANATANA DHARMA
YOGA ELKARTEA**

San Roke, 24-behea

**Informazioa: 943 74 85 93 edo
685 72 21 31 (Idoia)**